

Vitoria-Gasteizerako nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarri baten bidean

Parte hartzeko prozesua

Aldez aurreko diagnostikoa alderatzeko eta balioztatzeko
tailerra

LABURPEN-DOKUMENTUA



Udal webgunearen bidez online
debatitu eta parte hartzeko tailer
presentziala

Debate-tailer presentziala non eta noiz egin den:

**Europa Jaruregia
Vitoria-Gasteiz**

2016ko otsailaren 23a, asteartea, eta 24a, asteazkena

Online parte hartzeko epea:

*2016ko otsailaren 18tik martxoaren 10era bitarte
(www.vitoria-gasteiz.org/elikatuvg)*



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

Tailerra antolatzeko talde tekniko arduraduna

Diseinua eta koordinazio teknikoa:



*Carlos Verdaguer
Isabela Velázquez*

Tailerraren dinamizazioa eta bideratzea:



*Iciar Montejo
Zorione Aierbe*

Web diseinua eta kudeaketa:



*Claudia Pennese
Judith Ubarrechena*

Prozesuaren toki-koordinazioa:



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

*María de Santiago
Roberto González Argote*

Tailerrera bertaratu direnak

Abaitua Puelles Ander
Alonso Andrés
Andrés Orive Luis
Arbe Uxue
Basabizi Taldea (Alvaro/Eber/Markos)
Basterra Janire
Besares Bartolomé Zuriñe
Buendía Aitor
Bustillo Arias José Antonio
Calvo Liciaga Pedro
Cantero Susana
Cantón Pérez Amelia
Chaves Javier
de Ariño Amaia
de Miguel Roberto
de Vega Carmen
de Santiago María
Digón Ana
Escuderos Juan Carlo
Fernández Maite
Fernández de Pinedo Kike
Gainza Eusebio
Garay Lucio María
Goikoetxea Seminario Javier
González David
González Jesús Antonio
González Argote Roberto
Guadarrama Fuentes Omar Vicente
Hernando Silvia
Ibarrondo Mónica
Izar de la Fuente César
Jalón Idoia
Jausoro Sáenz de Cámara Jon
Knörr Javier
Lauzurica Fernández de Labastida Patxi
Lopez Luis
López de Arechavaleta Fernando
López de Arroiabe Eva
López de Lafuente Dorleta
López de Robles Javier
López Castro Luis
Madina Fernández de Arróyabe Gema
Marrero Xabier
Mauleón Joserra
Mesanza Marian
Miguel Aitor
Miguel Mertxe
Molina Miriam
Montoya Jon
Ochoa de Aspuru Eduardo

Ocio Gurutze
Ortiz Barredo Amaia
Ortún Pérez Edurne
Pérez Bengoa Ana Isabel
Rey Abásolo Koldo
Ruiz Roberto
Ruiz de Infante Jon
Sáenz de Buruaga Janire
San Martín Los Arcos Unai
Sánchez García Alejandro
San José Iñaki
Santiago Marcelino
Santidrián Heras Yolanda
Souza Fuentes Luis Miguel
Santxo Uxue
Uranga Patricia
Uriarte Marian
Vicente Yolanda

AURKIBIDEA

Aldez aurreko diagnostikoa alderatzea eta balioztatzea.....	9
1. Aurkezpena.....	9
2. Debate-tailerra.....	9
2.1. Tailerraren helburuak.....	9
2.2. Parte-hartzaileen kopurua eta profila.....	10
2.3. Tailerraren metodologia eta garapena.....	10
2.4. Debate-tailerraren lan-saioen emaitzak: funtsezko ideiak.....	11
2.4.1. Ekoizteko modua.....	12
2.4.2. Ekoizpen-arloa.....	16
2.4.3. Eraldaketa eta banaketa.....	24
2.4.4. Kontsumoa eta baztertzea.....	29
3. Online parte-hartzearen emaitzak.....	35
3.1. Online inkestaren ezaugarriak.....	35
3.2. Inkestaren emaitzak.....	35

Aldez aurreko diagnostikoa alderatzea eta balioztatzea

1. Aurkezpena

Hasiera batean herritarrek bultzatu zuten Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagai Estrategia zehazteko prozesua, eta, ahalegin trinko baten ondorioz, 2014an **‘Vitoria-Gasteiz nekazaritzako elikagai-sistema baten alde’** manifestua sortu zen. Erakunde-fasea 2014ko martxoan abiatu zen, eta Udalaren Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen udalerrarentzat Nekazaritzako Elikagaien Udal Plana egitea, manifestu horri erantzuna emateko asmoarekin. Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak koordinatuta, erakunde-zeregin hori 2015. urtean hasi zen, aldez aurreko diagnostiko teknikoarekin: **‘Vitoria-Gasteizerako nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarri baten bidean. Parte hartzeko diagnostikorako oinarritzko materialak’**.

2016ko otsailaren 23an eta 24an Vitoria-Gasteizko Nekazaritzako Elikagai Estrategian parte hartzeko prozesua jarri zen abian, aldez aurreko diagnostikoa alderatu eta balioztatzeko 1. tailerrarekin. Tailer hori bi saiotan egin zen, ondoz ondoko egunetan, aldez aurreko diagnostikoa balioztatzeko eta hobetzeko helburuarekin.

Gorka Urtaran alkateak hasiera eman zion debate-tailerrari, eta aurkezpen-ekitaldian azpimarratu zuen prozesua garrantzi handikoa dela udalerrarentzat, eta bide batez eskerrak eman zizkien lan-saioetan parte hartzeko izena eman duten pertsona ugari.

2. Debate-tailerra

2.1. Tailerraren helburuak

Debate-tailerrarekin, lehenik eta behin, herritarrek diagnostiko-dokumentuari buruz zer iritzi zuten jakin nahi genuen. Vitoria-Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Zentroaren aginduz sortu genuen diagnostikoa, udalerriko baldintzak aldez aurretik aztertzeko, eta, ildo horretan, etorkizunean nekazaritzako elikagai jasangarria bideragarri egiteko, bertako errealitatera egokituta.

Dokumentuak aztertutako esparrua alderatzeko eta balioztatzeko zeregin horren helburu osagarri gisa, funtsezko ideia edo faktore batzuk identifikatzeari ekin genion, hain zuzen ere parte hartzeko prozesuko fase guztiak banan-banan gidatzeko lagungarri izan litezkeen ideia edo faktoreak.

2.2. Parte-hartzaileen kopurua eta profila

Tailerrean guztira 68 pertsonak hartu zuten parte, horietatik 55ek lehen saioan eta 39k bigarrenean; 28 pertsona bi egunetan bertaratu ziren. Bi saioetan taldeka jardun genuen. 4 taldek jardun zuten aldi berean, talde bakoitzean gutxienez zazpi pertsona eta gehienez hamabost bilduta.

Parte-hartzaileen profilari dagokionez nabarmentzekoa da heterogeneotasuna izan dela nagusi nekazaritzako elikagai-katearen fase bakoitzean. Nolanahi ere esan beharra dago parte-hartzaile batzuek profil berdinak zeuzkatela, ekoizlearena eta banatzailearena batik bat. Heterogeneotasun hori gorabehera azpimarratzekoa da lehen sektoreko parte-hartzaile kopurua ez zela nahikoa izan, katearen fase horrek nekazaritzako elikagai-sisteman berebiziko garrantzia duela kontuan hartuta.

2.3. Tailerraren metodologia eta garapena

Lehen tailer honetarako diseinatutako metodologiari jarraikiz, lau gai tematiko sakonetik landu beharra zegoen, diagnostiko-dokumentuaren egiturarekin eta nekazaritzako elikagai-katearen faseekin bat etorritz:

- Ekoizteko modua
- Ekoizpen-arloa
- Eraldaketa eta banaketa
- Kontsumoa eta baztertzea

Lau gai horiei buruzko debatean ahalik eta ikuspegi gehien ziurtatzeko helburuarekin, helburu metodologiko espezifiko bat ezarri genuen, parte-hartzaile guztiek edo bakoitzak gai guztien lantaldeetan parte hartzeko aukera izan zezaten.

Horretarako debatea txandaka antolatu genuen, aldi bereko lau gune finko eskainiz egunean, eta talde mistoetako parte-hartzaile guztiak gune horietatik guztietatik igaro ziren, talde bakoitzak gutxienez bederatzi pertsona eta gehienez hamabi izanik.

Erakunde-ongietorriaren ostean, lehen bilerari hasiera emateko Ingurugiro Gaietako Zentroko ordezkariak prozesuko helburu orokorrak eta egutegi orokorra aurkeztu zituzten, eta, jarraian, talde teknikoak aldez aurreko diagnostikoaren lerro eta ondorio nagusien berri eman zuen.

Ondoren, parte-hartzaileak lantaldetan banatu ziren, elikagai-kateko fase guztiei dagokienez diagnostikoa bildutako alderdiak sakonetik aztertzeko.

Bildutako askotariko gaiei buruz (laborantza-eremua zabaltzeko ahalmena, dieta aldatzeko aukera eta abar) jasotako datuak sakonetik aztertu genituen, prozesua aurrera egiteko esparru egoki bat osatu ote zezaketen ikusteko. Eta ikuspegi eta datu berriak ekartzen ere ahalegindu ginen, helburu hori gogoan betiere.

Asteazkenean ere parte-hartzaile ugari bertaratu ziren, eta debate-saioekin aurrera jarraitu genuen. Proposatutako eremu tematikoei dagokienez lehen egunean izandako esperientziatik abiatuta, bigarren egunerako erabaki genuen ekoizteko moduari eta ekoizpen-eremuari buruzko debatea saio bakar batean egitea. Halaber, funtsezko ideia batzuk errepikatzen ari zirela ikusirik, aldi bereko hiru lan-saioen denbora pixka bat laburtzea erabaki genuen.

Taldekako lana amaiturik, tailerrean egindako lan kolektiboaren aldez aurreko ondorioak aurkeztu zituzten bideratzaileek osoko bilkura batean. Azkenik, galdera-txanda ireki zen, eta, hurrengo lan-saioaren helburuak aurreratu ondoren, amaiera eman zitzaion parte hartzeko prozesuaren lehen tailerrari. Aurreikuspenen arabera hurrengo lan-saioa martxoaren 15ean izango da.

2.4. Debate-tailerraren lan-saioen emaitzak: funtsezko ideiak

Lehen dokumentu hau idazterakoan ahalegindu gara lehen debate-tailer honetan egindako lana ahalik eta modu fidagarrienean jasotzen, parte hartzeko prozesuko hurrengo saioetarako gidari izan behar duen oinarrizko informazioa zehazteko.

Lan-saio bakoitzaren ondorioak azalduko dizkizuegu jarraian, funtsezko ideien bitartez errazago identifikatu eta irakurtzeko, debate-saioen gai espezifikoarekin zuzeneko edo zeharkako harremana handiagoa edo txikiagoa izan, hartara aztertutako gai guztien artean eta, oro har, nekazaritzako elikagai-katearen fase eta dimentsio guztien artean, sakoneko lotura dagoela nabarmentzeko.

2.4.1. Ekoizteko modua

Bideratzailea: *Iciar Montejo*

DOKUMENTUAREN BALIOESPENA

- Atal honetarako diagnostikoan jasotako informazioak balioespen positiboa jaso du. Nolanahi ere, soberakinei buruzko datu eta ondorioak ñabartu behar dira, ezinbestean, bereziki ekoizpenari buruzkoak.
 - Gainera, azpimarratzekoa da lurraldeko nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen egungo errealitatea sakonagotik aztertu beharko litzatekeela.
 - Bertako kontsumoaren eta bertako ekoizpenaren artean alde handia dago gaur egun, eta funtsezko ideia hori onartu beharra dagoela iruditzen zaigu.
-

DOKUMENTUARI EKARPENAK: FUNTSEZKO IDEIAK

Jardun-eremuak

- Aurrediagnostikoan identifikatutako hiru eremuak egokitzen eta beharrezkotzat jotzen dira: a) laborantza eta abeltzaintza motak **aldatzea, bertako elikagaien kontsumora** gehiago bideratzeko; b) Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako azalera handitzea: nekazaritza ekologikoaren ildotik jo beherako genuke, sozialagoa den heinean; c) baliabideen kontsumoa murriztea eta arlo horretan eraginkortasunez jokatzeko.
- Azpimarratzekoa da eremu horiek ez direla **elkarren baztertzailak**. Estrategiak integrala beharko luke, **bertako eskarian eta kontsumoan oinarritutako konponbide bat** bilatu beharko luke, eta bertan zirkuitu paralelo bat sortzen asmatu beharko luke, makropolitiketatik eta haien eraginetik aparte. Zirkuitu horrek, ekoizpen moduetan aldaketak sartzeaz gain, honako hauetarako **alternatiba eta konponbideak** ere bilatu nahi ditu:
 - **Produktuaren eraldaketa:** Iparraldean jarraitutako estrategia eredugarria da horretarako.
 - **Merkatuaren beharrezko egituratzea:** askotariko merkaturatzea eta banaketa.
 - Kontsumoaren zeregina: **kultura** eta sentsibilizazio **berri** batekin.
 - **Bidezko prezioa**, nola ekoizlearentzat hala kontsumitzailearentzat.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreko politika makroekonomikoak

- Gaur egun nekazaritzaren alorrean udalaren ekoizpen-eredua sektoreko politika makroekonomikoen eraginpean dago: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) kupo-sistema eta konpentsazio-ordainketen (baina ez laguntzen) politika, landutako azaleraren arabera saritzeko irizpidea eta abar. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da 2015-2020 NPEak “joko pixka bat gehiago emango duela” landutako produktuak baldintzatuta ez delako egongo.

Nekazaritzako elikagaien enpresa handien errentagarritasun ekonomikoa

- Nekazaritzako elikagaien enpresa handien portaerak eta errentagarritasun ekonomikoak ere eragin handia du sektorean. Nekazaritzako industriak lurraldeko zereal, patata eta erremolatxan zati handi bat bereganatzen du; berorrek ezartzen du prezioa, nekazariari erabakitze aukera handirik eman gabe. Gainera, ekoizten den guztia ez da giza kontsumorako elikagaia izaten.

Ekoizpen-soberakinen errealitatea

- Produktu jakin batzuetan, azukre-erremolatxan adibidez, ez dago batere soberakinik. Azucarera Ebro enpresak egiten du ekoizpenaren makroplangintza, ekoizpen-kupo jakin batzuk ezarriz.

Sektorearen errealitate profesionala

- Sektoreko profesionalen errealitatea ezin daiteke ahaztu. Sektore **finkatua baina zahartua da aldi berean, belaunaldi-erreibuko arazoak dituena**, eta lan-baldintzak pixkana-pixkana hobetu dituena (teknifikazioa, nekazaritzako elikagaien enpresei produktua segurtasunez saltzeko aukera, lana urteko hilabete gutxi batzuetan kontzentratzea etab.).

Lurraren jabetza

- Araban, oro har, **jabetza** honela banatzen da: % 25 nekazariena da, % 25 komunala edo jabetza publikokoa da, eta % 50 lurzorua errentan jartzen duten hirugarrenena.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen oinarrizko arazoak

- Faktore guztien baturaren ondorioz espezializazioa eta monolaborantza etorri da. Gainera, paisaia-aniztasunik ez dago gaur egun, udalerriko nekazaritza-jarduera pixkana-pixkana galtzen ari da eta lurzoruen kalitatearen gaineko presioa, aldiz, areagotzen.

Bertako kontsumoaren eta ekoizpenaren arteko aldea

- Oro har, baratzezaintza- eta abeltzaintza-kasu bakan batzuk aparte utzita, bertako produkzioa eta kontsumoa **loturarik gabeko munduak** dira: nekazaritza-ekoizpena nekazaritza-industriaren zerbitzuan dago, eta ekoizpena kanpora esportatzen da gehienbat. Eta kontsumitzen ditugun produktu gehienak ere kanpotik ekartzen ditugu. Esaterako patataren kasua dugu: hemen patata ekoizten den arren, ez da jatekoa neurri handi batean, eta beraz, kontsumitzekoa kanpotik ekarri behar da. Ekoizpen ekologikoko zereala ere hor dago: gaur egun kanpotik ekarri behar dugu, ezinbestean, bertan ez dugulako.
- Bestetik kontsumitzaileak ez daki ezer ekoizlearen inguruan, ez dute elkar ezagutzen, hurbiltasuneko edo konfiantzazko harremanik ez dago elkarren artean.
- **Gizartean elikadura- eta kontsumo-kulturarik ez dago.** Esaterako, produktuaren urtarokotasunaz ezer gutxi dakigu, baita produktuaren berezko ezaugarriez eta beste zenbait alorrez ere.

Trantsizio-estrategia baten beharra

- Ohiko ekoizpenetik ekoizpen alternatibora behar bezala eraldatzea ahalbidetuko duen estrategia. Prozesu progresiboa da, sistema batetik besterako trantsizioa ahalbidetzen duena, erakusteko eta ikasteko guneek babestua eta bermatua.

Trantsiziorako gako estrategikoak

- Konplexutasun eta aniztasun handiagoak.
- **Laboreen dibertsifikazioa:** baratze-produktuak, lekaleak, frutak...
- **Nekazaritzako elikagaiak ekoizteko sistema, lurrerako eta pertsonentzat egokiak diren jardunbideetan oinarrituta.** Ekoizlearen zein kontsumitzailearen osasunari begira. Laneku asko behar duen sistema, non teknologiak ere zeresan handia izan dezakeen: traktore elektrikoak, txikiagoak...

- Ustiategi txikietan: gaur egun nekazaritza-ustiategi estentsibo batek 100 hektarea behar ditu, gutxi gorabehera, familia batentzako behar adina diru-sarrerara emateko. Ustiategi alternatibo batek, ordea, lau hektarea baino ez ditu behar.
- Baliabideak eraginkortasunez erabiliz eta ura eta lurzorua kutsatu gabe: fitosanitarioak neurri txikiagoan erabiliz.
- Ustiategi mistoetan, **nekazaritza eta abeltzaintza uztartuz**, ustiategiek autonomian eta autosufizientzian irabaz dezaten. Abeltzaintzak ekarpen organikoa egiten dio lurriari. Abeltzaintzak kalitatearen alde egin behar du.
- Eta sektorean sartu nahi duten pertsonak zeregin garrantzitsua bete behar dute: nekazaritza-eskolek garrantzizko zeregina dute ildo horretan. Eskaintzen duten prestakuntza arautua ez da nahikoa; praktikoagoa behar du, eta alternatibak bilatu behar ditu, profesionalentzako bekak adibidez; hasiberrientzat funtsezkoa da beste nekazari batek laguntzea, baita lurretan sartzeko aukera izatea ere. Gainera, inbertsio jakin batzuk egin beharko lirarteke, mekanizazioan, azpiegituretan eta beste zenbait alorretan.
- Erakusteko guneak abian jarriz, sistema batetik bestera pasatzeko bidea errazteko, nekazariak gidatuta antolatutako saiakuntza- eta esperimendazio-bankuen bitartez, esperimendazioa ez ezik produkzioa eta laboreak poliki-poliki ezagutzeko aukera ere emango dutenak, eta gainera informazioa, jakintza, teknologia eta azterlanak partekatzea eta emaitzak ebaluatzea ahalbidetuko dutenak. Aurrera egin dezakegu, halaber, sortutako elikagai bakoitzaren ondasun komunaren balantzea egiteko bidean, produktuaren ziurtagiria eginez.
- Sektorea antolatzeke formulak bilatuz: antolamendu-kultura berri bat, lana errazteaz gain eskulana areagotzearen inpaktuak murriztuko dituenak.

Udalak lagundu behar du

- **Araudi erraztaile bat** ezarriz. Esaterako, egungo hirigintza-araudiak nabarmen murrizten ditu udalerrian abeltzaintza-jarduerak ezartzeko aukerak.
- **Ongi egiten duena sarituz.**
- **Zenbait ekoizpen-proiektu gidatuz, Basaldea adibidez.**
- **Ura duten udal-jabetzako lur jakin batzuetan sartzeari erraztuz.** Lur-banku bideragarriak sortuz.
- Eredugarri izanez. Esaterako, hiriko parke eta lorategiei buruzko beste ikuspegi bat eskainiz: beste espezie batzuekin (aromatikoak, fruta-arbolak etab.), osasun-

eta ingurumen-neurriak dakartzan tratamendu batekin, etab. Eredu horretan aipatzekoa da Noain Elortzibarreko (Nafarroa) esperientzia, jardunbide egokia zalantzarik gabe.

- Haztegi bat sortuz.
- Kalitatezko konposta sortuz hiri-hondakinetatik eta inausketa-hondarretatik abiatuta, lurerrako materia organiko egokia izango dena.
- **Autokontsumorako baratzeen alde** eginez, ekoizlearentzako lehia desleialaren arazoa baztertuta.
- Beste kontsumo-kultura bat sortzeko aukera emanez.

2.4.2. Ekoizpen-arloa

Bideratzailea: *Isabela Velázquez*

DOKUMENTUAREN BALIOESPENA

- Laborantza-eremua kuantitatiboki zabaltzea bigarren mailako zerbait iruditzen zaigu, ekoizpenaren alderdi kualitatiboen aldean.
 - Zentzu horretan, azterketaren xedeetarako ez dirudi ekoizpen modua eta ekoizpen-eremua bereiztea oso eraginkorra denik.
 - Autohornikuntzaren ikuspegitik ordea, eremu funtzionala udalerriko mugatik haratago zabaltzea behar da, ezinbestean.
-

DOKUMENTUARI EKARPENAK: FUNTSEZKO IDEIAK

Azalera zabaltzea baino gehiago aldatzea kualitatiboa behar da

- Azalera zabaltzea ez da arazo nagusia strategiari begira: ikuspegiak **kualitatiboagoa behar du kuantitatiboa** baino. Estrategia garatzeko lurren ahalmen kualitatiboa zehaztean dago gakoa. Une honetan aurrez aurre dauzkagun erronkak dira, batetik, kalitatea eta errentagarritasuna handitzea eta enplegu gehiago sortzea une honetan erabilgarri dauzkagun azalaretan, eta, bestetik, lantzen den azalera beste laborantza-eredu batera aldatzea.



- Autosufizientziaren bidean aurrera egiteko, Arabako eskala ezinbestekoa da, Lautada gutxienez. Eta 100 km-ko eskala ere kontuan hartzekoa da.
- Eta betiere alternatiba berriak bilatu behar dira, lurzoru-premia txikiagoak dauzkaten bestelako laboreekin proba eginez.

Erabileren arteko lehia eta hiri-plangintza

- Nolanahi ere, ez dugu uste ikuspegi kuantitatiboa gaintitu beharreko oztopo nagusia edo bakarra denik, **nekazaritza-lurzoruen eta hiri-erabileren arteko lehia** baizik, haietatik eratorritako itxaropen ekonomikoak ahaztu gabe.
- Ohiko nekazaritzaren lehia ere kontuan hartzekoa da; lautadako lurzoru bikainetan adibidez, lan-kargaren eta irabazien edo errentagarritasun ekonomikoaren arteko harremana ezin hobea da.
- Hirigintza-planek guztiz baztertu dute nekazaritza- eta abeltzaintza-errealitatea, jarduerari mugak eta murrizketa handiak baino ez dizkiote jarri, zentzugabeak batzuetan.
- Nekazaritzako lurzorua, orain artean bigarren mailako balioespen-maila batean zegoena, erreserba-balio berria hartzen ari da hiriko lurzoruaren aldean, eta, azken urteetan, lurzoru naturalaren aldean, azken hori gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari delarik azken hamarkadetan.
- Babesgabezia nabari da Hiri Antolamenduko Plan Orokorretik proposatutako hiri-zabalpenen aurrean. Eraikuntza masiboa bultzatzeko akordio sozialaren haritik etorri zen hori, baina ondoren argi geratu da higiezin burbuilak eragindako gezurrezko joera izan zela.
- Une honetan idazten ari den Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren arabera, lurzoru urbanizagarri finkatugabeak desklasifikatzen ari dira, eta horrek itxaropenerako atea irekitzen ditu lurrak pilatzeko ahaleginen aurrean. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak zapuztu ditu nolabait espekulazio-irabazien itxaropenak.
- Vitoria-Gasteiz hiri trinkoa da, jende gehiena hiriaren eragin-eremuan kontzentratzen delako, beste hainbat hiritan ez bezala. Donostiak adibidez, eskualde-buruaren gisa dihardu, biztanle kopuru handi samarra duten beste zenbait hiriren buru gisa alegia, eta hiri horiek guztiek **Donostialdea osatzen dute. Gauzak horrela, Vitoria-Gasteizek zailtasunak ditu**



produktuak banatu eta merkaturatzeko estrategiak ezartzeko, tailerlean parte hartzera bertaratu diren ekoizleen esanetara.

Berdatzea eta hiri-laboreak

- Hiri batzuek, New Yorkek adibidez, erabaki bat hartu zuten bere garaian, eta etengabeko ahaleginean jarraitzen dute. Hiri horiek nola berdatu diren aztertu behar da.
- Berdeguneek elikagaiak ere ekoitz ditzakete, ez bakarrik belarra, zuhaitzak eta loreak.
- Aldirietako nekazaritza da babesik handiena behar duena. Baratzeei lotutako bizimodu bat bermatzen duten gazte-ekimenak erakusteko guneak proposatzen dira.
- Eratzun berdearen inguruan eratzun marroi bat ezar liteke, “berdetik” gutxien duten eta bereziki lurrari lotuta dauden nekazaritza- eta ekoizpen-erabilerak biltzeko.
- Lagapenak egiteko behar adinako azalera dago.

Hiri-lurzoru urbanizagarri finkatugabeak birziklatzea

- Nekazaritzaren eta hiri-laboreen esperientzietan baztertzaileak ez diren zenbait formula daude indarrean. Ikastetxeen garrantzia. Amaitu gabeko auzo berrientzako soluzioak.
- Hirian nekazaritza urria da, inork gutxik hartzen du nekazaritza-laboreak bateratzeko ekimena, udalerriko ibai-arroak bizitegitarako edo industriadarako soilik erabili dituen hiri batean.
- Hiri-laboreek kultura eta sentsibilizazioa sortzeko eta berdatzeko helburua dute, baina ezin daiteke esan hori nekazaritza denik.
- Adibidez, Caritasen baratzea autohornikuntza-alternatiba dela esan dezakegu. Noingo hiri-nekazaritzari buruzko esperientziak ere aipatzekoak dira, zuzeneko salmentaren aukera eta guzti.



Lurrean sartzeko arazoak

- Nekazaritza ekologikoko eredu berrietan azalera txikiagoa behar da laborantzarako ohiko nekazaritza intentsibo mekanizatuan baino, azken horrek ekoizpen-lurzati handietan jarduten baitu.
- Errenten artean alde handiak nabari dira, eremu bakoitzeko nekazaritza motaren arabera.
- Konponbide egokiak behar dira hiritik gertuko eremuko lurrak oso banku eta higiezin-enpresa gutxiren esku gera ez daitezen.
- Esperientziak erakutsi digunez, zaila da lurzati txikiak nekazaritza ekologikorako alokairuan hartzea: **sarritan jabeek finka handiagoak alokatzea eskaintzen dute (esaterako, 10 ha eskaintzen dute, nahiz eta guk hektarea bakar bat behar izan baratze- eta fruta-labore ekologikoetarako), eta batzuetan soberako bederatzi hektareak beren kabuz kudeatzea ere eskaintzen dute, mekanizazio eta guzti.**
- Datozen urteetan azalera handiak jarriko dira errentan, berehala datorren belaunaldi-aldaketaren ondorioz.

Nekazaritza-lurzoruen kudeaketa

- Nekazaritza-lurzoruek kudeaketa konplexuagoa eskatzen dute: tresna finduagoak (trukeak eta abar), hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrietan erabiltzen direnen eta naturalen kudeaketan ere erabiltzen hasi direnen antzekoak.
- Trukeen aukera planteatu beharko litzateke, ibaiertzen erreserbak, landaresiak eta korridore naturalak lortzeko eta lurzoruaren kudeaketa globalaren ikuspegi ekologikoago batean behar diren beste erabilera batzuk bultzatzeko.
- Ibai ondoan, nekazaritzako lurzoruaren mugak ia-ia uretaraino iristen dira, eta lurzoru horiek urpean gera daitezkeenez, beste era batera kudeatu beharko lirateke.
- Erakundeek bitartekotza-lana egin beharko lukete, pribatuak barne, etxebizitza-gaietan egiten den bezala adibidez, trantsizioan alde ekonomikoa estaltzeko laguntza eskainiz.



- Jardunbide egokia: **Bizkaiko Lurren Bankua** Aldundiaren laguntzarekin, lursail publiko eta pribatuetarako sarbidea kudeatuz.
- Nekazariak nekazari-lurzoruen % 20 bakarrik dute jabetzan, gainerakoa hirugarrenei alokatu diete, edo bestela senideek laga diete.

Lurzoruen kalitatea

- Lurzoruen kalitatea ez da txarra, kontrolpean dago eta aldatzen da, arrazoizko maila batzuen barruan.
- Helburuetako bat lurzoruen artifizializazioa saihestea izango litzateke, nekazaritza-lurzoru edo lurzoru natural babestuei balioa emanez.
- **Hiria ongarritzea beharrezkoa da hiriko eraztun berdea eta nekazaritza-eraztuna mantentzeko.**

Ura eta klima

- Dagoeneko **5.000 ha ureztatzen dira Vitoria-Gasteizek botatzen duen urarekin**. Hegoaldean arazoak sortzen dituen urarekin ere antzeko azalera bat urezta liteke.
- Denborak eta aniztasuna zabalduz udaberriko eta udako laboreetatik haratago joanez gero, gehiago ureztatu beharko litzateke eta babes handiagoa eskaini.
- Labore hidroponikoak eta antzekoak aztertu behar dira.
- Uraren zikloa kudeatzean kontuan hartu beharra dago segurtasun juridikoa bermatu beharra dagoela, edo nekazaritzarako arrazoizko prezioak izateko aukera eskaini.
- Klimaren zailtasunak konpentsatu dira beti udaberriko eta udako soberakinak biltzeko konponbideak eskainiz: potoak, kontserbak edo egungo kontserbazio metodo berriak.
- **Lehia zaila da benetan, lurzorua eta klima zerealarentzat** (garagarra eta malta) **ezin hobeak direlako**, eta oso lan gutxiren truke oso errentagarriak direlako, Espainiako onenen artean.

Nekazaritzako elikagaien industria eta Nekazaritza Politika Erkidea

- Ohiko nekazaritza-azaleraren zati handienak oso eremu handiak eskatzen ditu, 100 ha-ko eremuak gutxi gorabehera, eta monolaborantzarako lurak dira, nekazaritzako elikagaien industriarako lehengaiak sortzeko helburua dutenak; ez dira beraz elikagaiak ekoizteko lurak, ezta, are gutxiago, tokiko kontsumorako edo zirkuitu laburretarako lurak ere.
- Nekazaritzako industriarako ekoizpena da, neurri handi batean.
- Gehienek aukera hori egiten dute erabilera oso mekanizatuak errentagarritasuna eta erosotasuna eskaintzen duelako, beste lan osagarri batzuekin bateragarria delako eta Nekazaritza Politika Erkidearekin bat egiten duelako, ekonomikoki ezinbestekoa dena; izan ere, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak atzeratzen badira, nekazari gehienek ekonomia mehatxupean geratzen da.
- Ekoizpenean izandako aldaketak Europako negoziazioen ondorioz etorri dira: esaterako, erremolatxaren kupoak labore horren beherakada ekarri du berekin, ekoizpena Frantzia eta Alemanian kontzentratu delako. Gaur egun Espainiak azukrea inportatzen du (erne, diagnostikoaren arabera % 100eko autosufizientzia zalantzapean geratu da).
- Nekazaritza Politika Erkideak nahikoa askatasuna ematen du hainbat aukera lantzeko. Europan, hainbat eredu eta estrategia gainjartzen dira. Gaur egun azalera oinarritzen da laborean baino gehiago.
- Orientazioa goragoko eremu batetik markatzen da neurri handi batean (Nekazaritza Politika Erkidea, merkatuak eta abar), baina goitik datozen jarraibide horietatik askatzeko aukera ere bada.
- **Esan dezakegu Nekazaritza Politika Erkideak 2020an esparru berri bat irekitzeko aukera eskaintzen duela, laster gertatuko den errelebu profesionala ere aintzat hartuta. Itxuratzen ari den esparru horretara egokitzeko ahaleginetan gaude une honetan.**

Abeltzaintzaren garrantzia

- **Abeltzaintza poliki-poliki desagertu da industriarako ohiko nekazaritza-eredutik.** Abeltzaintza abandonatuta dago, landari bizkarra ematen dion hiriaren araudi baztertzailleak guztiz itota.



- Abeltzaintza lurzorua ongarritzeko beharrezkoa da ordea. Abeltzaintza integratzea funtsezkoa da lurzoruen kalitatea hobetzeko, beharrezko ongaria errazago lortzeko.

Ohiko nekazaritza eta agroekologia

- Agroekologia alternatibarik onena izaten ari da etekin gutxiagoko eremuetan.
- Ohiko nekazaritza agroekologiara hurbiltzen ari da pixkana-pixkana, behin ekoizpen integratuaren jarraibideak jaso ondoren: ongari gutxiago, herbizida gutxiago eta abar, neurri batean arazo ekonomiko soilak tarteko agian, baina askotan, halaber, kontzientziazioa, eskariaren gorakada eta beste zenbait arrazoi direla medio.
- Ekologikorako trantsizioa bideratzeko laguntzak behar dira, eta trantsizio hori pixkana-pixkana bultzatu behar da, nekazariari pizgarriak eskainiz, ustiatégian aurrerapauso hori emateko ausardia bil dezaten. Proiektu pilotu partzialak behar ditugu.
- Nekazaritza ekologikoa eta baratze-laboreak sustatzeko makinak sortzen hasi dira.
- Azalera handiak (Eroski adibidez) bertakoaren edo nekazaritza integratuaren alde egiten ari dira.

Lehen sektorearen gizarte-errealitatea

- **Lehen sektorean gizarte-eremua aztertu gabe dago oraindik, eta lehen sektorea funtsezko aldaketa-bektorea da.** Eraldaketak eskatzen duen denbora, prestatzen den lurrarekiko atxikimendua, inguruneko sare soziala, eremuko ohiko nekazarien funtsik gabeko beldurrak eta horrelako gaiak garrantzitsuak dira estrategia bat planifikatzeko garaian.
- **Landa-munduarekiko loturarik eza:** sekulako aldea dago nekazaritza-munduaren eta hiri-munduaren artean, eta elkar ulertzearen falta eta mesfidantza dira nagusi.
- Aukera berriak sortzen ari dira zahartze demografikoari loturik: nekazari berriak gazteak dira, hobeto prestatuak, eta irizpide hobea dute ekoizle tradizionaletako askok baino.



Eredu berri baterantz

- **Nekazaritza-, baso- eta abeltzaintza-eredu berria behar dugu, ingurumenaren kontserbazioa eta eraginkortasuna uztartuz ekoizpenaren oinarri gisa.**
- Lehendik dauden askotariko ekoizpen-ereduak aprobetxatu behar dira.
- Kultura berri bat sortzeko aukerak badaude: gizarteak ohartu behar du lehen sektore propio bat behar duela, elikagaiak edonondik inportatu beharrean. Hori non eta nork egin behar duen zehaztuko da gizarteak edo hiriak nahi duenaren arabera.
- Abian dauden esperientzia pilotuekin egindakoa aztertu, azaldu eta balioetsi behar da, eta hortik ondorioztatu zenbaterainoko ahalmena dagoen Abetxuko edo Olarizuko baratzeetan Basaldeako ekoizpen-esperientzian eta abar.
- Beharrezkoa da elikagai-katearen prozesuak arrazionalizatzea.

Gizarte-eskariaren sustapena

- Bestelako laboreak bultzatu behar dira, kontsumo modu alternatiboak betetzeko (esaterako, patatak ez bakarrik ereintzarako edo Matutanorentzat).
- Gizarte-ekonomiaren bitartez eskaria sortu behar da, eskaria eta antolatutako taldeen kontsumoa direlako aldaketaren funtsezko eragileak. Eraldatze-bidean dagoen eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka lortu behar da.
- **Produktu ekologikoen (zuzeneko kontsumokoak zein eraldatuak) eskari osoari ezin zaio erantzun, baina produkzioa eta kontsumoa uztartzea ez da lan erraza izaten.** Etorkizuna baduen adibide bat: malta eta garagar ekologikoaren ekoizpena, garagardo ekologikoen azkenaldiko gorakada aintzat hartuta.



2.4.3. Eraldaketa eta banaketa

Bideratzailea: *Carlos Verdaguer*

DOKUMENTUAREN BALIOESPENA

- **Eraldatze-industriaren ahultasunari** dagokionez diagnostikoan eman dugun iritzia baieztatu da, eta fase hori indartzeko politikak gidatzeko lagungarri izan daitezkeen datu eta erreferentziak bilatu beharra ere berretsi da.
 - Legegintza-alderdiak funtsezkotzat jotzen dira zentzu horretan.
 - Elikagai-katearen eragile, sektore eta dimentsio guztien arteko koordinaziorik, eta antolamendurik eza ere funtsezko eragilea dela iruditzen zaigu.
 - Nekazaritzako elikagai-estrategia bat sortzeko bidean diagnostikoan zirkuitu laburrei eta hurbilekoei emandako garrantzia berretsi da.
-

DOKUMENTUARI EKARPENAK: FUNTSEZKO IDEIAK

Eraldatze-industria

- Fase honek garrantzi txikia dauka Vitoria-Gasteizko katean, sektorean nagusi den logika etekin ekonomikoetan oinarritzen delako neurri handi batean. Eraldatze-industria urria da, eskala txikikoak (okindegia, patata frijituak eta abar). Azukre-lantegia orain hogeita hamar urte desagertu zen. Irin-industriarik ez dago. Hiltegiak ere ez dago: Oñatira edo Laudiora joan behar dugu ezinbestean. Hiltegiak ez dira errentagarriak merkatuko egungo araudia eta egitura aintzat hartuta. Abelburuen tamaina ere funtsezkoa da, eta horrek ere industria handiari egiten dio mesede.
- Logistikaren ikuspegitik ekoizle txikientzat ezinezkoa da industria handiarekin lehiari sartzea, besteak beste lurzuaren prezio handiek produktuaren azken prezioa baldintzatzen dutelako. Bertako ekoizpenerako eraldatze-zentro txikirik ez dago.
- Arrazoez galdetuta lege- eta administrazio-zailtasunak aipatu dituzte parte-hartzaileek beste ezer baino lehen, instalazioei eta higienari buruzko indarreko legeak nagusiki industria handiarentzat pentsatu direlako. Lege-



eskakizunek, osasun-arloan batik bat, eraldatze-zentro txikiak sortzea galarazten dute. Izan ere, euskal legeria murriztaileenetako bat da gaur egun, instalazioak egiteko industria txikiarentzat neurritz kanpokoak diren inbertsioak eskatzen dituelako. Bideraezina da bertako ekoizle txikiek soberakinak eraldatzea.

- Zenbait ekoizle txikik **partekatutako eraldatze-eragiketak** ahalbidetuko dituzten **alternatibak falta dira** (lantegi komunak). Ekoizle txikien zerbitzupeko hiltegi ibiltarien alternatiba falta da.
- Nolanahi ere, legeriak malgutzerako joera hartu du nolabait zentzu horretan: Eusko Jaurlaritza malgutze-dekretu bat prestatzen ari da, lehengo egoera ez hain murriztailera nolabait itzultzeko.
- Zentzu horretan zenbait alternatiba ere itxuratzen hasi dira, Iparraldean sortzen ari direnen antzera.

Antolamendurik eta koordinaziorik eza

- **Enpresa-antolamendurik edo sektorearteko koordinaziorik ez dago.**
- **Administrazioen artean koordinaziorik ez dago**, eta bakoitzak bere eskumenak ditu nekazaritzako elikagaien kateari dagokionez.

Zirkuitu laburrak eta hurbileko zirkuituak

- Ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko tartea gero eta handiagoak dira (540 km/kg barazkietan, batez beste, MercaBilbaon), eta horrek bere inpaktua dauka ekologian eta gizartean.
- **Premiak identifikatzeko koordinaziorik eta mekanismorik ez dago.** Banaketa alternatiborako egungo sareak ez dira nahikoak, baina aukera-eremu bat eskaintzen dute, haragi eta deribatuetan eta baratze-produktuetan bereziki.
- Ekoizpena ez da bertako produktuetara bideratzen. Eskala txikiko bertako ekoizpenak (Idiazabal gazta adibidez) aldi behingo kale-azoka eta kale-merkatuetan bakarrik lortzen ditu errentagarritasun handi samarrak.
- **'Klusterizaziorik ez dago'**, hau da, sareak osatu behar dira bertako ekoizpen ekologikoaren aktore guztien artean.



- Ekoizpena eta banaketa ez da lan erraza, ekoizpen-lanek ez dute banatzeko denborarik uzten.
- Esnearen merkatuari dagokionez egungo merkatu-egituraren barruan esne kantitate handiak ekoiztu behar dira kanpoko merkatu handiarentzat, bestela ez delako errentagarria izango. Ekoizle gehienek horren aldeko apustua egin dute. Esne gordina merkaturatzeko alternatiba ere hor dago (ganadu saneatua, hotzean kontserbatzea eta abar), baina debatzeko dago oraindik. ARABAESNEA proiektua (bertan ekoiztu eta banatutako esne pasteurizatua makinaren bitartez euro baten truke saltzeko ekimena) bertan behera geratu da, eta horrek agerian uzten ditu bertako ekoizpenaren zailtasunak. Porrotaren arrazoiak: kontzientziazio eza, kontsumo-kultura, biztanle gehiegi modalitate horrentzat.
- Ekoizleak kontsumitzaileari zuzenean saltzeak traba ekonomikoak gainditu behar izaten ditu egun, baina saskien bitartez zuzenean banatzea goraka ari den sektorea da, eta aukera handiak dauzka etorkizunari begira.
- Teoriaren eta praktikaren artean kontraesan handiak daude: bertakoa eta ekologikoa babesteko adierazpen eta formulazio politika handiak ez dira gauzatzen azkenean. Politikarien aldetik ez da borondaterik ikusten, baina esan beharra dago udal-estrategia hau salbuespena dela horretan.
- **Konpromiso politiko eta sozialik ez dago** bertako ekoizpenaren helburuari dagokionez.

Zigilu eta ziurtagiri ekologikoak

- Ekoizle batzuek ez dituzte zigilu eta ziurtagiri ekologikoen eskakizunak bete nahi. Antza denez, zenbait zigilu ekologikok ez dituzte jasangarritasun-aldagai handiak aintzat hartzen (gizarte-arlokoak adibidez).
- Ziurtagiri ekologikoak konplikatuegiak edo murriztaileak dira.

Bertako kontsumo ekologikoa

- Abiaduran oinarritutako bizi-ohiturek eta kontsumoak elikagaien eredu industrialala sustatzen dute.
- Oro har, deskonexio handia dago ekoizpenaren eta kontsumoaren artean.



- Bertako produktua hobea eta jasangarriagoa da orokorrean, baina produktu bakoitzeko prezio absolutua handiagoa da. Nolanahi ere, ez dirudi eroshalamen handiagoak zuzenean dakarrenik kalitatezko produktu ekologikoen eskaria handitzea. Dirudenez bertako kontsumo ekologikoak zerikusi handiagoa du kontsumitzailearen kontzientziazioarekin eta konpromisoarekin beste ezerekin baino.
